

**Donostia Ospitaleko Pertsonaleko
Zuzendaritzak egina.
2005eko iraila.**

**Donostia Ospitaleko profesionalen gogobetetasuna
hobetzeko ekintzak**

Aurkezpena	3
Parte-hartzearen arloa	7
Komunikazioaren arloa	11
Lan-baldintzen arloa	15
Fisikoak eta ingurunearekin zerikusia dutenak	17
Segurtasuna osasuneko arriskueta	19
Ordutegiak, egutegiak, lizentziak eta baimenak	21
Heziketaren arloa	23
Promozio eta Garapen profesionalaren arloa	27
Lan-giroaren arloa	33

Donostia Ospitaleko hobetze-talde desberdinek Pertsonaleko Zuzendaritza honek koordinaturik, urte osoan zehar eginiko bileren emaitza aurkeztu nahi dizuegu. Zuzenean parte hartu duten profesionalek (100 inguru izan dira) ahalegin itzela egin dute funtzionamendu egokiagoa eta behar bezalakoa lortzeko ekintzak bilatze aldera.

Hau da Donostia Ospitalean profesionalen gogobetetasun-inkesta baten emaitza aztertzeko egiten den lehen saioa, eta azpimarratu behar dugu parte hartu duten pertsonen lankidetzat. Horren bidez, dudarik gabe, lorturiko emaitza garrantzitsuak uler daitezke, eta, ziur gaude, eguneroko lanean oihartzun handia izango dutela.

Horregatik, nire eskerrik beroena horientzat guztientzat, beren ideiek eta ekarpenek giza baliabideen kudeaketa biziagoa eta aberasgarriagoa eragin baitute.

Oraindik bide luzea dugu egiteko. Hasi besterik ez dugu egin eta. Hala ere, gure asmoa da esku artean duzuen dokumentu honetan norantz goazen ikus dezazuen.

Josune Retegi
Pertsonaleko zuzendaria

esku onenetan

PARTE-HARTZEAREN ARLOA



PARTE-HARTZEAREN ARLOA

Arlo honetan proposatutako ekintzak honako hauek izan dira: Donostia Ospitaleko Batzorde Teknikoa eratzekeo prozedura martxan jartzea, prozesu desberdinetan partaide izan diren estamentuen parte-hartzea bermatuko dituzten protokoloak berregitea, hobetze-taldekak mantentzea eta "Donostia Ospitaleko profesionalen gogobetetasun-inkesta" egitea.

Irailaren 6ko Zuzendaritza Kontseiluak Donostia Ospitaleko Batzorde Teknikoa eratzekeo prozedurari hasiera ematea erabaki zuen. Egitura horrek garrantzia handia izango du profesionalen parte-hartzea sustatzeko garaian, eta eskuduntza izango du asistentzia-kalitateko politikak, antolaketa eta funtzionamenduaren hobekuntza eta estrategia asistentzial, diagnostiko eta terapeutiko berrien balorazioa formulatzeko orduan; bai eta, ikerkuntza, irakaskuntza eta prestakuntza arloan jarduketara-ildoen inguruko proposamenak formulatzeko garaian ere. Aurreikusita dago urte honetako azken hiruhilekoan abian jartzea.

Zuzenean nahiz zeharka parte-hartzearen sustapenean eta informazioaren transmisio eta komunikazioarekin zerikusia duten hainbat alderditan oihartzuna duten protokoloak egin, aztertu eta/edo eguneratu egin dira. Hauetatik honakoak azpimarratuko ditugu:

Unitateak irekitzeko/ixteko protokoloa

Zirkuituak aldatzeko protokoloa

Ospitalizazio-zerbitzuak/-unitateak mugitzeko protokoloa

Obrak eta berritze-lanetako protokoloa

Ekipamendu berria eskatzeko protokoloa

Hobetze-taldeen emaitzei, funtzionamenduari eta lanari buruz eginiko balorazio positiboaren aurrean, taldeak mantentzea erabaki da sor daitezkeen beharren arabera egokituz.

Azaroan "Donostia Ospitaleko profesionalen gogobetetze-inkesta" egingo da beren iritzia ezagutarazte aldera eta lortutako ondorioekin zerikusia duten erabaki egokiak hartze aldera.

Protokolo guztiekin argitalpen berezia egingo da.

esku onenetan

KOMUNIKAZIOAREN ARLOA



KOMUNIKAZIOAREN ARLOA

Komunikazioaren arloak 2005. urteari begira, Komunikazio-plana eta Ospitaleko Harremanen mapa egitea aurreikusi zuen, zentroko barne- zein kanpo-komunikazioa hobetzeko xedearekin.

Komunikazioko arduradunari bai Plana bai eta harremanen mapa ere egiteko enkar-gua egin zitzaion; horretarako bere lantaldeko laguntza eta 2004. urtetik lanean dihar-duen Komunikazioaren taldearen laguntza ere izan ditu.

Plana eta Harremanen mapa Zuzendaritza Kontseiluak 2005eko I. hiruhilekoan onartu zituen 2005eko Plan operatiboarekin batera.

Data horretatik aurrera arlo honetan proposaturiko 40 ekintza jarri dira abian. Ekintza horien guztien bidez lortu nahi dena da gure zentroko profesionalak informa-tuta egotea eta, horren ondorioz, horietan parte hartzea, gure jardueren azken hel-burua erabiltzailea dela ahaztu gabe.

Ekintza hauek barne-komunikazioan:

Zuzendaritza-Gerentziak zerbitzuburuekin, gainbegiratzailleekin edo sindikatuekin izandako bilerak

Zentroko erdi-mailako kargudun eta profesionalentzako komunikazioaren tekni-kei buruzko ikastaroak

Barne-dokumentuak eta protokoloak berraztertzea

Obren eta/edo mugikortasunaren inguruko jarduketa-protokolo berriak

AGA barruko buletina

Zein kanpo-komunikazioan:

Memoria

Donostia Ospitaleko aldizkaria

Erakundearen bideoa

Barruko zein kanpoko seinaleak berraztertzea

Euskararen kanpainaren aldeko zenbait ekintzatan laguntzea

Horrezaz gain, ospitalean eginiko argitalpen guztiek, hala nola, foileto, aldizkari, Memoria, Plan estrategiko, Kudeaketa-planek, etab. komunikazioa hobetzeko sartu nahi diren aldaketak jasoko dituen diseinua daukate. Hori horrela, esku onenetan esloganak, edo Donostia Ospitalea osatzen duten eraikin guztien irudiak zentroaren estilo berria islatuko lukete.

Ospitaleak argitaraturiko lanak zentroko web orriaren bidez kontsulta daitezke: www.hospitaldonostia.org/publicaciones.

esku onenetan

LAN-BALDINTZEN ARLOA



Arlo honetan aintzat hartzen dira lan-baldintzekin, fisikoak zein inguruneakoak, osasuneko arriskuen segurtasunarekin, eta ordutegi, egutegi, lizentzia eta baimenekin zerikusia dutenak. Horien artean, hobetze-taldeen garrantzitsuentzat jo dituztenak garatu dira.

FISIKOAK ETA INGURUNEAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK

Arlo honetan bi ekintza garrantzitsu aurkeztu ziren:

Espazioetako Plan Zuzentzailea

Funtsezko hiru oinarri abiapuntu harturik: osasun-zerbitzuak eskaintzeko diseinurik egokiena bilatzea, pazienteen erosotasuna eta profesionalen lan-baldintzen hobekuntza, Espazioetako Plan Zuzentzaileak Donostia Ospitaleak bere egitura fisikoari epe laburrera eta luzera ematen dion garapena eta planifikazioa, betiere, bere zerbitzuen organizazioaren arabera aurkeztu ditu.

Honako arlo hauek hartzen ditu:

Ospitalizazioa

Kanpo-kontsultak

Larrialdiak

Medikuntza Intentsiboko Zerbitzua

Operazio-gelak, Laborategiak

Anatomia Patologikoko Zerbitzua

Farmaziako Zerbitzua

Hemodialisiko Zerbitzua

Erradiologiako Zerbitzua

Erradiologia Interbentzionistako Unitate Funtzionala - Kirurgia Baskularra

Etxeko Ospitalizazioa

Erradioterapiako Zerbitzua

Zainketa aringarrietako Zerbitzua

Bestelakoak

Gaur egun Espazioetako Plan Zuzentzailea prozesua bukatzeko eta eztabaidatzeko fasean dago. Bere aurkezpena 2005eko azken hiruhilekoan egingo da, behin une honetako fasea bukatuz gero.

Obren protokoloa

Helburua, beste zerbitzu edo unitateei esleitutako espazioa eskatzen ez duten obrak edo birmoldatze-lanak egiteko sistema arin eta azkarra ezartzea da, betiere giza baliabideetan aldaketarik eskatzen ez badute edo pazienteen zirkuituan eragina ez badute.

Protokoloa eginda dago eta oinarritzko irizpideak honako hauek dira:

- Eskaera idatziz aurkeztu behar da eta unitateetako arduradunek izenpetu behar dute (zerbitzuburuak eta gainbegiratzailerak).
- Proiektu eta Azpiegituretako Zerbitzuak obrari buruzko aurrekontua egingo du.
- Prebentzioko Zerbitzuko Oinarritzko Unitateak eta Prebentzioko Zerbitzuak obra berriari buruzko txostenak egingo dituzte.

Proiektu eta Azpiegituretako arloko buruak txosten guztiak aztertuko ditu eta gerentearekin batera obra egitea onartuko du; ondoren, eskaera izenpetu dutenei jakinaraziko zaie.

Dokumentu osoa ospitaleko Intraneten ikus daiteke /Ospitalean gaur/ Zuzendaritzaren erabakiak/2005eko apirila atalean.

SEGURTASUNA OSASUNeko ARRISKUETAN

Ekintzen artean, atal honetan honako hau jasotzen zen:

Arrisku eta prebentzioei buruzko informazio-gidak egitea eta zabaltzea.

Iraila bitartean 18 gida egin dira. 2005. urtean 6 argitaratuko dira eta hurrenez hurren gainontzekoak argitaratuko dira. Egindako gidak honako hauek dira:

- Odolaren bidez transmititzeko arrisku biologikoaren prebentzioa
- Pazienteak mugitzea
- Produktu kimikoak
- Emergentzia-egoerak
- Itzalgailuak erabiltzea
- Zamak eskuz erabiltzea
- Material biologikoarekin lan egiteko orduan istripua-gertakaria
- Produktu kimikoekin istripua-gertakaria izaten den kasuetarako jarduketa- plana

Datorren urtean honako gida hauek bukatzea eta zabaltzea aurreikusita dago:

- Arrisku biologikoari aurre egiteko norberaren babeserako ekipoak

- Jarduera-gomendio orokorrak laborategi batean
- Laserra erabiltzearekin zerikusia duten arriskuen prebentzioa
- Portafiltroa duten maskarak erabiltzeko arau orokorrak
- Lanean eta bizitzan jarrerak zaintzeko gomendioak
- Presiopeko gas likidoetako botilak erabiltzea
- Transpaletak erabiltzea
- Produktuak eta ekipoak erostearekin zerikusia duten prebentzio-baldintzak
- Zitostatikoen erabilera segurua

Behin argitaratuz gero, ospitaleko web orriaren bidez kontsulta daitezke /Argitalpenak, edo Prebentzioko Oinarrizko Unitatean (Ama-haurrentzako erakina, -2. solairua).

Lan-arriskuen prebentzioa dela-eta, langileek eginiko kontsulten komunikazio-prozedura egitea (DESADOSTASUNAK).

Prozedura honen helburua langileek lan-arriskuei buruz egiten dituzten kontsultak, erdi-mailako kargudunen bidez bideratzea. Bere edukia eta zabalkundea urriaren lehen astean egingo zaie erdi-mailako kargudunei.

Erdi-mailako kargudunei dokumentuaren zabalkundea egin bezain laster, eskura izango duzu Prebentzioko Oinarrizko Unitatean eta Donostia Ospitaleko web orrian.

Aldi baterako pertsonalari mediku-azterketa egiteko jarduketa-protokoloa egitea.

Pertsonala hautatzearen eta osasuna zaintzearen arteko jarduera bateratua ezartzeko asmoz, hautagaiari telefonoz deituko zaio mediku-azterketa egin behar duela

jakinarazteko, eta Prebentzioko Oinarrizko Unitatea izango da horretarako ordua emateko ardura izango duena.

Dokumentua eskura izango duzu Pertsonaleko departamentuan, prebentzioko Oinarrizko Unitatean eta Donostia Ospitaleko web orrian.

ORDUTEGIAK, EGUTEGIAK, LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

Buru eta erdi-mailako kargudunentzako kudeaketa-eskuliburua. Langiroa

Kudeaketa-eskuliburuarekin honako hau lortu nahi da: pertsonen eguneroko kudeaketan erdi-mailako kargudunei laguntzea, jarraibide orokorrak jakinaraztea, gure profesional guztiek egunez egun sortzen zaizkien galderei erantzutea eta planteatzen dizkiguzuen iradokizunak modu errazean eta irekian jasotzen eta hasierako dokumentua hobetzen lagunduko duen tresna izatea.

Izan ere, Pertsonaleko Departamentuaren eta erdi-mailako kargudun guztien arteko konpromisoa ekarriko du, bai eta zentro osoko langileek nahi dituzten helburuak lortzeko laguntza ere.

Lau arlo handi jasotzen ditu:

Lizentzien eta baimenen araudia

Pertsonal ez-finkoa kontratatzea/hautatzea

Administrazio-egoerak

Karteldegien/nominen prozesuak

Aldi baterako kontratazio-beharrei buruzko protokoloa

Gure zerbitzu-erakundearen eguneroko lanean pertsonala lortzeko izaten diren premiak ikusita, eta kontuan izanik, Pertsonaleko Departamentuarentzat gainerako unitate eta zerbitzuekin duen harremanerako funtsezko gaia dela, ezinbestekoa zen bi aldeetako gogobetetasuna aseko zuen protokoloa egitea.

Protokolo honen helburua asistentzia-planifikazio batetik eratorritako "kontratazioko eskaera edo proposamena"ren plangintza egitea da, Osakidetza ezarritako sistemaren arabera hautatze egokia eta egokitua egitearren, kontratazio-beharrei nahiko denborarekin erantzun ahal izateko.

Horrezaz gain, pertsonaleko beharrak zehazteko eta eskaeraren aldaketagatik edo jarduera berria izateagatik sortzen diren beharrei erantzuna emateko barne-plangintza ezarri beharko da.

esku onenetan

HEZIKETAREN ARLOA



Heziketaren arloak ekintzen artean Ospitaleko Heziketa-plana eta Euskalduntze- eta alfabetatze-plana egitea proposatzen zuen.

Ospitaleko Heziketa-plana egitea

Donostia Ospitaleko Etengabeko Heziketa-plana eginda dago. Plana egiteko orduan, arlo desberdinetako heziketaren gabeziak antzemateko prozedura sistematizatua erabili da; hezi beharreko pertsonak, eman beharreko gaiak eta heziketa-jarduerak planifikatuz. Plana metodologia baten arabera egitaratu da eta arloka taldekatu da.

Hori horrela, Heziketa-plana ospitaleko helburu eta estrategiekin bat datorren irakaskuntzako jarduera bat programatzeko oinarrizko tresna gisa finkatzen da.

2006ko Heziketa-planaren aurkezpena urrirako dago aurreikusita.

Euskalduntze- eta alfabetatze-plana

Donostia Ospitaleko euskalduntze- eta alfabetatze-plana burutu da.

Aurtengo 2. lauhileko heziketa-plana Euskalduntze- eta alfabetatze-planak ezarritako irizpideen arabera egin da: lanorduetan ikasteko lehentasuna emanez planean lehen-tasunezko unitateetako langileei eta derrigorrezkotasun-data dutenei.

Osakidetza web orrian /Euskalduntze-plana atalean, Plan honekin zerikusia duen guztia aurki daiteke.

Aurrerago adieraziko dugunez, Donostia Ospitaleak Euskalduntze-plana indartu egin du zenbait neurriekin, esaterako, euskararen aldeko Adierazpena, sensibilizazio-kanpainak eta elebitasuna bultzatzea, zentrorako euskararen weba, hizkuntzaren erabilera bultzatzeko pinak (borondatezko erabilera), pegatinak, etab.

esku onenetan

**PROMOZIO ETA GARAPEN
PROFESIONALAREN ARLOA**



PROMOZIO ETA GARAPEN PROFESIONALAREN ARLOA

Arlo honetan bost ekintza proposatu ziren, barne-sustapenerako dokumentua egitea, unitate funtzional pilotuak martxan jartzea, pertsonala gazteagotzeko plana, Kudeaketa Klinikoko Unitateak garatzea eta Karrera Profesionalaren garapena.

Barne-sustapenerako dokumentua egitea

Ekintza honen helburua gaur egun dauden prozedurak hobetzea berdintasun-, merit- eta gaitasun-printzipioak bermatuz.

Dokumentua Pertsonaleko Zuzendaritzak egin du ospitaleko langileek zentzu honetan eskatutakoa kontuan izanik eta ordezkari sindikalekin izan beharreko negoziazioaren zain egonez.

Dokumentu berriaren berrikuntzak honako hauek dira:

- Kategoria guztietan zerrendetako sistema irekia.
- Lan-baldintzen Akordioak ezarritakoaren arabeko baremazioa.
- Sustapen-proposamenekiko uko egiteak arautzea.

Bestalde, lan-baldintzak arautzen dituen Akordioak zerbitzu-erakunde desberdinetako aldi baterako barne-sustapena aurreikusten du eta instrukzioaren bidez arautuko da.

Bi dokumentu horien berri bere garaian emango da eta ospitaleko web orrian izango dituzue eskura.

Unitate Funtzional pilotuak

Erakunde eta enpresa sanitarioek bizitasun eta ziurgabetasun handia duten inguruneari hobeto egokitzeko egitura malguagoak ezarri nahi dituzte. Eta premisa, eta,

ez emaitza gisa, prozesuak berriz diseinatzeak barne-oztopoak ekiditen saiatzen den ikuspegi horizontala dakar. Horrek derrigor berekin honako hau dakar:

- Koordinazio-mekanismoak berriro orientatzea
- Egitura formala eta informala beste irizpide batzuetatik definitzea
- Erabaki operatiboen marko logikoa berriro planteatzea

Kalitate-, kostu- eta denbora-dimentsioen arteko oreka hobetzeko premia larriak malguagoak diren antolatze diseinuetan aurreratzea ekarri du. Antza denez, hauek guztiek, esaterako, erabakien deszentralizazioak, erabiltzailearengan oinarritutako emaitzei loturiko autonomia profesionalak eta gizabanakoaren eta ekipoaren erantzukizunak, erakunde-sistema tradizionalen benetako orientazio-aldaketa dakarte.

Ilido horri jarraituz, Donostia Ospitaleak Unitate Funtzional pilotuak sortzeko apustua egin du eta Zuzendaritza Medikoak martxan jartzea ahalbidetuko duten oinarri-dokumentuak egitea bultzatu du.

Dokumentu hauek Unitate horietako plan funtzionalei dagozkie; eginda daude eta Zuzendaritzak behin betiko onartzeko zain hauek daude:

- Oftalmologia
- Garezur-oinaldearen patologia
- Patologia baskularra

Behin behin betiko dokumentua onartuz gero, Donostia Ospitaleko web orrian izango da eskuragarri.

Pertsonala gazteagotzeko plana

Ekintza honen xedea pertsonala egokitzeko eta gazteagotzeko ekintzei hasiera ematea da, betiere, indarrean dauden arauen arabera.

Akordio berriak "erretiro partziala" jasotzen du, hau da, lanaldi osoko kontratua lanaldi partzialeko kontratu bihurtzen duen lan-kontratupeko langile finkoen egoera da. Orokorrean, lanaldia eta soldata %85 murrizten da eta langabezia dagoen beste edozein langilek ordezkatzeko du, ordezkaturako langileak erabateko erretiroa hartu

arte gainontzeko lanaldia egiteko konpromisoa hartuz.

Modu horren arabera erretiratu diren pertsonen kopurua apiriletik aurrera, 6 profesionalena da, eta jakin badakigu, beste 4 lagun ari direla GSiNean aitortzeko izapideak egiten.

Kudeaketa Klinikoko Unitateak garatzea

Ekintza honen helburua Kudeaketa Klinikoko Unitateen garapena bultzatzea da. Zuzendaritzak prestatutako kontratuan ezarritako baldintzak onartzen dituzten Unitate eta/edo Zerbitzuetan, bi alderdien aldetik konpromiso batzuetara iritsiz, eta betiere honako irizpideetan oinarrituz:

- Malgutasuna eta errealitatera egokitzea.
- Antolamendu-egitura berri baterantz aurrera egitea.
- Asistentzian etengabeko hobekuntza bilatzea
- Profesionalen gogobetetasun handiagoa lortzea
- Autonomia eta erantzukizuna

Laborategiko Zerbitzua kudeaketa-eredu berri honetan ari da lanean 2004. urteaz geroztik.

Urte honetan zehar, Ospitaleko Gerentziarekin batera hasierako dokumentua izenpetu du Larrialdietako Zerbitzuak, eta hortik abiatuta hasiko da eredu berri hau garatzen.

Karrera Profesionalaren Garapena

Ekintza honen helburua, berriz, Ospitalean Karrera profesionalaren garapena ezartzen lagunduko duten ekintzak bultzatzea da.

2005eko maiatzaz geroztik, Garapen profesionalaren proiektuarekin harreman zuzena duen programa bat abian jartzeko zentro pilotua dugu Ospitalea, hain zuzen ere "CURRICULUM VITAE" izeneko programa.

CV aplikatuz, profesionalei baliabide bat eskaini nahi zaie, beren curriculum akademikoarekin eta profesionalarekin loturiko informazio guztiak ezagutu eta eguneratuta edukitzeko aukera emango diena, hemendik aurrera Osakidetza informazio-sistematan erregistraturik geratuko baitira horiek guztiak.

Programa hau baliagarria da profesional bakoitzaren curriculumari buruzko ebaluazio indibiduala egiteko.

Donostia Ospitaleko Pertsonaleko Zuzendaritzak, Arantzazu eraikinaren 3. solairuan, helburu horretarako bulego teknikoa prestatu du, eta bertan, 6 informazio-puntu daude, datuak barneratzeko eta curriculumak baliozkotzeko.

Irailaren 20rako 60 curriculum zeuden baliozkotuta, baliozkotzera etortzeko deituak 12 eta 3 ari ziren baliozkotzeko izapideak egiten.

Osakidetza web orriaren bitartez (Osakidetza/garapen profesionala/GB/Curriculum/Eskuratu/Klabea) programa hori kontsulta daiteke.

esku onenetan

LAN-GIROAREN ARLOA



Sail honen eginkizunen barruan lau ekintza abiaraztea jasotzen da. Etika Profesionalaren Kode bat prestatzea, talde-lanaren Unitate pilotuak bultzatzea, identifikazio nominalerako plana, autokontzertazio-programa arautuko duen protokolo bat prestatzea eta Mugikortasuneko Plana.

Etika Profesionalaren Kode bat prestatzea

Ekintza honen helburuen artean ETIKA PROFESIONALAREN DEKALOGO bat egitea jasotzen da. Horregatik, 2005eko maiatzean talde bat sortu zen Pertsonaleko Zuzendaritzako zerbitzuburuaren koordinaziopean.

Izandako bilera desberdinen emaitza gisa, 10 puntu nagusiak izango direnak finkatzeko erabakia hartu da, eta horrek guztiak, laneko giroa eta pazientearenganako arreta ahalik eta egokienak izaten lagunduko digu.

ETIKA PROFESIONALAREN DEKALOGOA

HARRERA: pazienteei eta lankide berriei harrera on bat egiteak seguruago sentitzen lagunduko die gurekin hasten diren unean.

KONFIDENTZIALITASUNA: gure lanari buruz informazio pribilegiatua dugunez gero, ezarrita dauzkagun helburuetarako beste ezertarako ezin dezakegu erabili. Gure bezeroen eskubidea eta profesionalaren betebeharra da.

HEZKUNTZA: komunikazio gizabidetsu, egoki eta errespetuzko batek errazago egiten ditu pertsonen arteko harremanak.

ENPATIA: "bestearen" lekuan jartzeak handitu egingo ditu hari laguntzeko gure aukerak, bere arazoak ulertzeko ahalegina egiten delako.

PROFESIONALITASUNA: eguneroko egoerak modu egokian konpondu ahal izateko beharrezkoa den arretarekin eta ardurarekin jokatu behar da, egoera horietako bakoitzaren erantzule eginez.

TXUKUNTASUNA: gure inguruan sortzen dugun ingurune fisikoak eta gure aurkezpen pertsonalak besteekiko errespetuaren adierazgarri izan behar du.

PUNTUALITASUNA: gure lana zehaztasunez, segurtasunez eta ziurtasunez egiteak gu gauden egitura handi horrek hobeto funtziona dezan laguntzen du.

HARMENA: entzuten badakigu eta mezuak jaso ahal baditugu eta gure inguruko ekintzak egoki interpretatzen baditugu, horiekin aberastu egingo gara geu ere.

ELKARTASUNA: gure lankideekin elkarlanean aritzea, lana errazago eginez eta haien hutsuneak hobetuz. Jarrera gizabidetsuagoak hartzea gure lan-ingurunean.

TOLERANTZIA: batzuek eta besteek garen bezalakoak onartzea, geuregandik hasita. Gureak ez bezalako iritzi eta jokabideak errespetatuz gero, gure ingurunea aberatsago egingo dugu helburu bera lortzeko bidean.

Talde-lanerako unitate pilotuak

Helburua talde-lanerako unitate pilotuak bultzatzea da, laneko giroa erraztuko dutenak. Asistentziako Zuzendaritzak bi Unitate hautatu ditu, beren lanerako prestutasun, jarrera eta ezagutza nabarmena kontuan izanik.

- Ebidentzian oinarritutako Medikuntzako 4. 2. Unitatea.
- Urologiako 2. 1. Unitatea

2005. urteko lehen lauhilekoan "talde-lanaren heziketa" eskaini zaie unitateko arduradun eta profesionalei, bi helburu hauekin: batetik, talde-lana errazten eta/edo eragotzen duten faktoreak aztertzea, eta bestetik, talde-komunikazioko baliabideen eraginkortasunari bultzada ematea.

Halaber, profesional horiek taldeen zuzendaritzan sakondu zuten: lidergoa, motibazioa, gainbegiratzea eta aginte-lanak.

2005. urterako aurreikusitako helburuen ebaluazioa eta 2006. urterako proposamena egingo dira datozen hilabeteetan: metodologia oinarritzat harturik planifikatuko dituzte bi unitateek beren jarduerak.

Esperientzia gainontzeko unitateei aurkeztuko zaie, eta, behin ebaluazioaren emaitzak ezagutuz gero, zabaltzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko dira.

Identifikazio nominalerako plana

Helburua profesional guztien identifikazio nominala lortzea da, gure bezeroekin dugun harremana eta profesionalen artekoa hobetuz.

Zuzendaritza Ekonomiko Finantzarioa Identifikazio Nominalaren Plana prestatzen ari da Ospitaleko profesional guztientzat. Plan hori 2005eko urrian aurkeztuko da, eta hurrengo sei hilabeteetan martxan jartzea aurreikusita dago.

Horren bitartez bi helburu lortu nahi dira: zentroko langileak eta erabiltzaileak ezagutu dezatela zein profesionalengana jotzen duten, eta horri esker, Osakidetzan euskararen erabileraren normalizazioa lortzea.

Autokontzertazio-programa arautuko duen protokoloa

Autokontzertazioa lanaldi arruntean bertako baliabideak (azpiegiturak, bitartekoak, antolamendua, zentroko giza baliabideak eta bitarteko teknikoak) erabiliz betetzetik izan ez den asistentzia-eskaera xurgatzea da, betiere talde horien partaidetza borondatezkoa izanik eta zentroko ordutegi arruntetik kanpo, hori egiten duenarentzat emankortasunagatik osagarri bat arautzen delarik.

Zuzendaritza Medikoak "KUDEAKETAREN HOBEKUNTZA" izeneko protokoloa prestatu du, jarduera izendatzeko irizpide batzuekin, itxaronzerrendak gutxitzeko asmoz, eta horren oinarritzko helburuak honako hauek izango direla finkatu du:

- Zerrendan pazienterik ez egotea 6 hilabetetik gora.
- Batez besteko berandutzari bere horretan eustea, jarduera kirurgikoetan 60 egunetik gorakoa ez izaten ahaleginduz eta 30 egunetik gorakoa proba osagarrietan eta kanpo-kontsultetan.

Barneratzea/kanporatzea onar dezaketen prozesuetako irizpideak eta zerbitzuek/unitateek bete beharreko baldintzak ere finkatzen dira.

2005eko maiatzean prestatutako "Kudeaketaren Hobekuntza" izeneko agiria Zuzendaritza Medikoan eska daiteke.

Mugikortasuneko plana

Mugikortasuneko Planak Ospitaleko sarbidea hobetu eta erraztuko dituzten ekimenak sustatu nahi ditu. Kontuan izanik, gehienetan hartu beharreko erabakiak udal eta/edo foru aldundiaren eskumenekoak direla, lehen helburua erakunde horien partehartzea lortzea izan zen.

Gaur poz handiz esan dezakegu Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritza elkarlanean ari dela Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariekin, Donostia Ospitaleko sarbideak hobetuko dituzten ekintza koordinatuak planteatzeko asmoz.

Lan bateratu honen emaitza gisa, ondorengo ekintzak gauzatu dira orain arte:

- Donostia Ospitalera egunero etortzen diren pertsonen kopuruari buruz hiru erakundeek egindako azterketa bateratua, zein eremu geografikotatik datozen kontuan izanik.
- Herri barruko autobus-lineak zabaltzea.
- Zentrorako sarbideak eta sarrera nagusia hobetzea.
- "Ibilgailu partekatuari" buruzko azterketa.

Ibilgailu partekatuaren erabilerari buruz eginiko azterketaren emaitzei dagokienez, guztira 94 auto izan daitezke aparkatzeko lehentasunerako erabakitako neurrien onura lor dezaketenak.

Datozen hilabeteetan, eratutako erakundeen arteko taldeak forma emango dio behin betiko proposamenari.